

Uxue Perez Mujika

B maila • 3 aipamena

Kaixo, Uxue Perez naiz eta 16 urte beteberri ditut. La Salle Beasainen jarduten dut eta denbora librean mendira joatea, irakurtzea eta lagunekin egotea gustatzen zait. nahiz eta ez izan lehenengo aldia irabazten dudala, lehengoa balitz bezala poztu naiz. Idazlana guztatuko zaizuelakoan...



OROI-TA-PENAK

Ez dut **oroitu** nahi, **penak** ahaztu nahiko nituzke. Iragana ezabatu, orainean bizi. Hala ere okerragoa da orain sortzen ari naizena. Inolako helbururik gabe noraezean, bukaera ongi jakin arren, bidea ezagutzea falta zaidalako. Hostoek bezala haizeak gidatuko nauelakoan... Inozoa! Ez naiz jabetzen zer nolako mina egiten diodan neure buruari.

Gaur ere etxean geratzeko asmoa nuen probetxuzko ezer egin gabe, alferkerian egoteko. Hala ere lagunak nire gustuko plan bat eskaini didate eta nik, harritzekoa, baiezkoa esan diet. Prestatzeko orduan alferkeriak jota, iritziz aldatu dut baina jada Su ta gar-en Mari, belarriak zulatzen ari zitzaidala, jaikitzea erabaki dut, nire "bizitza sozial" horri hil baino biziago deitu ahal izateko. Eta igande batez etxetik ateratzea lortu dut. Rastro-a bisitatzeak bere miraritxoak baititu.

Txikitatik gustatu izan zaizkit antzinako egunerokoak, eskutitzak... eta are gehiago norenak ziren jakiten nuenean. Bilduma txiki bat osatzen hasia nintzen jada, beste pertsona hauen bizitzetako ezaugarriak asmatzen joan nintekeelako, batzuetan pixka bat muturluzea sentitzen nintzen baina... beste orrialde bat irakurtzeko tentazioak gogor jotzen ninduen eta tentazioak irabazi orduko, lehenago sumatutako barne kezkak ere ihes egiten zuen. Urteak pasa ahala, idazle bakoitzaren aldartea asma nezakeen idazterakoan erabiltzen zuten indar eta idazkerengatik. Horixe zen Rastro-a hainbeste maitatzeko arrazoietakoa bat, niretzako altxor txiki horiek, balio gutxiko gauza bezala saltzen zituztelako. Gaurkoz eguneroko bat erostea pentsatu dut, hauetan jendeak bere barneko suak kanporatzen dituztelako eta irakurlearekin beti lotura berezi eta itxi bat lortzen duzulako, nahigabe ere idazlearekin identifikatua sentitzen zarelako. Jada bere pentsamenduak ulertzen hasten zarenean une batez, berarekin bat sentitzea ere iristea da nire helburua.

Kaixo adiskide, ezin dut jasan hementxe giltzapeturik egotea. Urrutitik itsasoa ikusten ari den arrain bat bezala sentitzen naiz. Dena nahi, eta ezin. Berriz ere, "ziegara" bidali naute. Aspertuta nago hemen egoteaz, nazkatuta. Gorrotoak samintzen nau.

Azkenean eskutitz eran idatzita dagoen orri multzo bat erosi dut. Saltzaileak esan dit idatzi zuen umearen familia hildakoan, etxea erosi zuen hurrengo bikoteak liburutegi dena postu horri saldu ziola. Eta ume horrek ez zuela ongi bukatu. Datu horrek, nire izaera morbosoa piztu eta eskuizkribu hori irakurtzeko gogoia, irrikan eraldatu zuen.

Oraingo honetan lortuko dut bizitza kaxkar eta huts hau atzean uztea. Zuri ere lagundu nahi nizuke lagun, hau irakurtzen ari bazara.

Kalera irten garela aprobetxatuz lagunekin zahar itxura zuen taberna batean sartu gara, oso iluna da eta dirudienez bakarrik bermut-a eta ardo goxoa zerbitzatzen dute. Manzanilla bat, oliba batzuk eta hainbat isiltasun deserosoren ostean, bakoitza bere etxerantz abiatu da eta ni metroa Solen hartu orduko nire altxor txiki eta baliotsua miresten hasi naiz. Ez da oso luzea eta laukidun paper batean dago idatzita. Testuan hainbat idazkera mota desberdin daude baina dena pertsona bakarrak idatzi du, nerabeak... boligrafo urdinez dago idatzia zirriborro ugarirekin. Txukuntasuna ez zen bere dohainetako bat.

Gaur esango diot aitari jadanik gauzak bakarrik egiteko gai naizela, ez dudala hainbesteko zainketarik behar. Itotzen ari zaidala lotzen didan sokarekin, eta heldu zaidala nire bidea bakarrik hasteko ordua. Baina berriz ere, betiko sermoiarekin etorriko zait eta beste zigor bat gehituko da nire zerrendara. Ez, ez, hobeto ez diot esango.

Irakurtzen ditudan eskuizkribu, eskutitz eta egunerokoak txukun edukitzeko metodoarekin jarraitu dut, honek bakoitzaren deskribapen txiki batean datza: Eskuizkribu honek 20 urte inguru izango ditu, nerabe batek idatzia da eta dirudienez ez zegoen gustura bere bizimoduarekin, baina, beldur zen honi aurre egiteko.

Penak kontatu nahi izango nizkioke norbaiti, baina pentsa lagun, zugana jo behar izan dut. Pentsa noraino iristen den nire bakardadea, zu zara nire azken esperantza, bidezkoa al da? Denok irrikatzen dugu hain maitatua den askatasuna, baina lortzen al du inoiz norbaitek bere helmugara heltzea? Helmugarainoko bidea ezagutzea da, falta zaidana eta hemen nago, denbora galtzen, ezerezean.

Ez nuen inola ere horrelakorik espero, egia esan, harrituta utzi nau ume honek duen bizitzarekiko ikuspegiak. Lehenago aipatu dudan lotura hori ere sentiarazi dit konexio bat, agian bion artean antzekotasun ttipi bat aurkitu dudalako edo.

Hau irakurtzen ari zaren horri, azken aldian zugan pentsatzen aritu naiz, nolakoa ote zaren, nola bizi zaren, zure bizimoduan pentsatzen... nire sentimenduak ez partekatzea opa dizut, lotuta sentitzea bizi daitekeen gauzarik okerrenea baita, nahiago nuke utopia batean biziko bazina, aske izaten, hegaz etorkizunerantz, bide berri bat eraikitzen. Baina badakit hau irakurtzera iritsi bazara, ez zarela utopia horretan bizi, besteen bizitzak arakatzen ari baitzara, erantzunak aurkitzeko.

Zur eta lur utzi nau irakurritakoak. Umea, nerabea zela uste nuen, baina, dirudiena baino helduagoa da. Horren ondoren eta nire eskutitz honi buruzko oharrek aldatzea otu zait, hauxe jarri dut bigarren aldian: Eskuizkribu honek hogeitau urte inguru izango ditu, nerabe (heldu) batek idatzia da eta dirudienez ez du lortzen bere helburura iristea.

Sentitzen dut adiskide, baina oraingoa azkena delakoan nago, ez dakit zer egin, konformista hutsa izan, ez borrokatu, edo ziur galduko dudan gudan hasi, baina... ez al da gauza bera? Bat edo beste,

onartzeko prest al zaude? Nik egingo dut nire aukera, baina zuk, lortuko al duzu? Agian egunen batean elkartuko gara biok amets baten bila, iluntasunean.

Eta zuk? Beste aldean dagoen irakurle ezezagun hori, sentitu al duzu loturarik, askatasun bila hasteko grina, edo, amore emanik jada **oroit eta pena** bezala bizi al duzu momentu hau?